Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Jose Mari Igartua San Jose

Soraluze, Gipuzkoa (1930)

Aurkibidea

Biografia

Gurasoak bergararrak zituen, eta nahiz eta Jose Bergaran jaio, bizi guztia Soraluzen eman du. Aita bertako iturgina zen, baina gazte hil zen, tuberkulosiak jota. Soraluzeko maristetan ibili zen eskolan. Marrazketa lineala ikasi zuen Soraluzen eskolatik kanpo, eta gero Eibarren industria maisu titulua atera zuen. Soraluzeko kanoi lantegian ekin zion lanari, baina soldaduskatik itzuli zenean amak kudeatzen zuen burdindegi dendan hasi zen lanean. Etxerako tresna elektrikoak ere saltzen zituen. 64 urterekin itxi zuen denda. Arrantza eta ehiza zalea da, eta jubilatu zenetik itsasontzi miniaturak egiten dihardu. Ehizari eta arrantzari buruzko azalpen interesgarriak ematen ditu.

Zintak

SOR-080

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-11-08
- **Iraupena**: 49 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

SOR-081

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-11-08
- **Iraupena**: 43 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Pasarteak

1. Ikasketak Soraluzen hasi eta Eibarren bukatu

- **Erref**: SOR-080/002
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:02:23. **Bukatu**: 00:04:15

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:
Eskolan maristetan ibili zen. 7 urterekin hasi zen ikasten. 10-13 urte bitartean, bi delineatzailek marrazketa lineala erakusten zuten eskolatik kanpo eta Joxe Marik haiekin ikasi zuen. 13 urte zituela, armagintza-eskolara joan zen ikastera eta 3 urte eman zituen han.

2. Euskarak gero eta esparru gutxiago herrian

- **Erref**: SOR-080/004
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:05:57. **Bukatu**: 00:07:17

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Maristetan ibili zenean, gerra garaia zen. Eskolan gaztelaniaz izaten zen dena. Kalean ez zuten euskaraz egiten, erregimenaren aldeko norbaitek entzunda "kristianoz hitz egiteko" esaten baitzien. Dendan lan egiteko ere, gaztelaniaz egiten zuten bezeroren batek euskaraz jakingo ez zuela pentsatuta.

Transkripzioa
-Hemen Maristetan eskolan hasi ziñanian, gerra denboran, ezta?
-Bai, bai. Sei urte... treintaseisa gu Maristetan.
-Eskolak-eta erderaz pentsaitten dot izango ziela.
-Bai, bai. Danak, e. Baitta Eskola Armerixia be. Erderaz.
-Euskeraz eittiagatik kastiguik izaten zeben?
-Berak frailliak ez. Baiña guk kalian be ezin [giñun] euskerarik ein, porke tokatzen zan erozein hortara pixkat rejimenekua "digamos", eta esaten oskuen "que hablemos cristiano". Ta, klaro, gure euskeria horregatik da pixkat zatarra. Zatarra edo; pixkat erderaako...
-Joeria, ezta?
-Joeria. Gero beste bat dendiagaittik be bai. Porke mostradoria bazaoz lehen, ba zu euskeraz bazabiz herrikuekin, baten bat sartzen bazan... Ta hamen erdeldunak, puf, azkenengo hirurogei urtian dagoz. Ta asko gaiñera, ta horregaittik erderaz in bihar han eta.

3. Marrazketa linealeko irakasleak

- **Erref**: SOR-080/005
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:07:17. **Bukatu**: 00:08:11

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Marrazketa lineala Oregi eta Artolazabalek erakutsi zioten. Biak ziren fabrikako delineatzaileak.

4. Errege etxea: denetarako etxea

- **Erref**: SOR-080/009
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:09:36. **Bukatu**: 00:12:25

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Errege Etxea oso handia zen: barruan zeuden berdura plaza, eskola nazionalak, udaletxeko bulego batzuk, zalditegia, torloju-denda, hiru etxebizitza, postetxea... 60ko hamarkadan bota zuten etxe hura.

5. Berdura plazako merkataritza eta arrain-saltzaileak

- **Erref**: SOR-080/011
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:12:33. **Bukatu**: 00:13:44

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Berdura plaza Errege Etxearen barruan zegoen. Baserritarrak egunero etortzen ziren hara. Lehen arraina gurdietan saltzen zuten, ez lokaletan. Ondarroatik etortzen ziren arraina saltzera.

6. Gerran bonbak Soraluzen

- **Erref**: SOR-080/013
- **Iraupena**: 0:03:07. **Hasi**: 00:13:47. **Bukatu**: 00:16:54

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:
Kartzela Errege Etxearen barruan zegoen: gerra garaian, herritar ugari egon ziren preso bertan. Gerrako oroitzapen gutxi ditu: behin hegazkinak bonba bota zuen herrira eta erreketea hil zuen. Kanoi-fabrika bonbardatzen saiatu ziren tropak, baina ez zuten lortu. Gerra garaian, Joxe Mariren familia osoa joaten zen Untzetara babestera.

7. Burdindegiko produktuak aldatzen

- **Erref**: SOR-080/015
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:17:30. **Bukatu**: 00:19:52

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:
Burdindegiaren martxa aurretik zetorren, eta amak hartu zuen hango ardura. Hasiera batean, baserriko eta sukaldeko tresnak saltzen zituzten; gerora, amak aldatu egin zuen negozioa, eta tailerretako erremintak saltzen hasi ziren.

8. Torloju-dendetarako denetariko materiala

- **Erref**: SOR-080/016
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 00:19:52. **Bukatu**: 00:20:46

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza

Laburpena:
Torloju-dendetara saltzen zituzten tresnak. Era askotako hariak eduki behar izaten zituzten.

9. Torloju-dendak hornitzen

- **Erref**: SOR-080/017
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:20:46. **Bukatu**: 00:22:32

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:
Torloju-dendak hornitzeko, inguruan zeuden tailerrak aipatzen ditu. Revolverren eta automatikoen arteko diferentzia.

10. Soraluzen jende fina

- **Erref**: SOR-080/019
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:23:36. **Bukatu**: 00:25:22

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:
Burdindegian baserriko tresnak saltzen zirenean, ordainketak nola izaten ziren azaltzen du: batzuetan momentuan, bestetan zorretan utzita beste batean ordaintzeko. Soraluzen oso jende fina egon izan da.

11. Dendan etxetresna elektrikoak saltzen hasi zirenekoa

- **Erref**: SOR-080/020
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:25:22. **Bukatu**: 00:28:49

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Fagorren etxetresna elektrikoak saldu izan ditu dendan. Petroliozko estufak atera zituen lehenengo Fagorrek; geroago, sukaldeko etxetresna elektrikoak etorri ziren. Petroliozko estufa haiek tailerretan eta etxeetan erabiltzen ziren. Hozkailuak hasieran dirudunek bakarrik eros zitzaketen.

12. Lehenengo garbigailuak eta haien funtzionamendua

- **Erref**: SOR-080/021
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:28:49. **Bukatu**: 00:31:27

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:
Garbigailuak hasiera batean nolakoak izaten ziren eta zer instalazio behar izaten zuten azaltzen du.

13. Garbigailuen zentrifugazioa lehen

- **Erref**: SOR-080/022
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:31:27. **Bukatu**: 00:33:45

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Garbigailuen zentrifugazioa lehen nola egiten zen azaltzen du. Garbigailuek 100 kiloko pisua zuten.

14. Gerraosteko elikagaien kalitate kaxkarra

- **Erref**: SOR-080/023
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:33:45. **Bukatu**: 00:35:26

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Gerraostean ogi zuria erosten zuten, baina oso arriskutsua izaten zen. Ogi hura nolakoa izaten zen deskribatzen du. Batata eta algarrobo-leka ere jaten zuten.

Transkripzioa
-Zu beti kalian bizi izan zara, ezta?

-bai, beti.
-Gerra osteko gosiakin akordatzen zara?
-Gosiakin hemen akordatzen naiz basarri bat Txurrukan baiño harutzatxuao, ogixa, ogi zurixa eitten zeben isilixan. Ta hartu bizikeletia ta hara. Hori akordatzen naiz ni.
-Ogi zurixa jatera?
-Jatera ez, erostera.
-Saltu eitten eben, e?
-Bai, baiña ez giñan denpora skuan ibili. Jaten ... beste ogi hori, emoten zeban, eztakitt, hori-hori-horixa, ez dakit ze zan. Gaur be kimikuak ez dabe jakingo ze dan hori.
-Txuskuak edo zerak?
-Holako, flanan moduko gogo-gorra, azal baria. Artaliana emoten zeban baiña ha ez zan artalia. Ez dakit ze materixal zan haura. Ta aalgarrobak, kaballuak jaten dabena hori lekiori.
-Hori be jaten zeben?
-Onbre! Eta boniatua patatian ordez.
-Nundik ekrten eben ba...
-Ez dakit, ezz dakit. Bai ba. Ta orduan azido urikorik ez zan egongo. Baiña pulmoikua bai. Asko, e.
-Aitta be esan dozu hola joan zala, ezta?
-Aitta pulmonixiakin joan zan.

15. Herrian tuberkulosia eta medikua non?

- **Erref**: SOR-080/024
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:35:26. **Bukatu**: 00:37:07

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Gosetea zegoenez, tuberkulosia asko zabaldu zen herrian. Gaixoak etxean zaintzen zituzten. Herriko medikua Artadi izan zen, baina gerra garaian borrokara eraman zuten.

16. Herrian mediku onak izan zituzten

- **Erref**: SOR-080/026
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 00:37:35. **Bukatu**: 00:39:11

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:
Medikua etxerik etxe ibiltzen zen. Bi mediku on egon ziren herrian, beti laguntzeko prest. Gerra garaian tuberkulosia egon zen, baina botikarik ez; jende asko hil zen horrela.

17. Gosetearen urte gogorrak

- **Erref**: SOR-080/027
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:39:11. **Bukatu**: 00:40:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
1941-1951 bitartean urte txarrak izan ziren gosearengatik. Armagintza-eskolan zerbait jaten ematen zieten, baina etxera iristerako gose handia izaten zuten.

18. Dantza lotua libre Soraluzen

- **Erref**: SOR-080/030
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:41:52. **Bukatu**: 00:43:03

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Gazteak zirela, plazan egiten zuten dantza. Lehen banda zeukan Soraluzek eta ospetsu samarra zen. Dantza lotua egitea libre zen Soraluzen.

Transkripzioa
Zuek gaztiak ziñenian, dantzara ta neskatan eta...
-Bai, jo, e, hamen, plazan. Bandiak. Bandia. Plaentxiak gaur ez daka; orduan bandia zakan musikakua. Bastante famosua bandia gaiñera, juergistak zian gehixenak. Eta hamen eitten [zeben], hamen plaza zaharrian. Agarrauan.
-Neskak libre euken agarrauan eittia?
-Bai, bai. Abadiak bazebitzen harutz eta honutz, baiña ez. Hamen ez da egon, dantziagaittik ez da egon hainbeste. Gerria egon da dantziagaittik eta Azkoitti aldian eta hor. Hamen ez, hamen laga eitten zeben. Bai, bai. Agarraua baiña hamen, danen aurrian.
-Gero neska lagunketan be joago ziñien.
A, hori bakoitzan abilidadia da. Bakoitzak, e.

19. Barkileroa herrira zetorrenean

- **Erref**: SOR-080/032
- **Iraupena**: 0:01:01. **Hasi**: 00:43:06. **Bukatu**: 00:44:07

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:
Umetan barkileroa etortzen zen herrira. Barkiloak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

20. Zinera dohainik iragarkiak dendako erakusleihoan jartzeagatik

- **Erref**: SOR-080/033
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:44:07. **Bukatu**: 00:45:15

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
Zinera joaten zen gaztetan: sarrera ez zuen ordaindu behar izaten, zineko iragarkiak beren dendan jartzen baitzituzten.

21. Zineko giro alaia eta erronboak

- **Erref**: SOR-080/035
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:45:20. **Bukatu**: 00:48:05

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:
NODOa umetatik ezagutu izan du. Zineko makinista pelikula jartzera zihoala, ume guztiak txaloka jartzen ziren poz-pozik. Pelikula sailkatzeko erronboak erabiltzen ziren. "Debekatutako" pelikula bat ikusteagatik zigortu egin zuten Joxe Mari.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com